



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/23

Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe Adineko Personen Autonomiaren eta Arretaren Sustapenerako Plan bat egiteko eskatzea Aldundiari

Gaur goizean egin dan osoko saioan, Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe beharren diagnostikoan, gaur egungo errealidadearen ebaluazioan eta etorkizunerako aurreikusten diran eskarrietan oinarrituta egongo dan Adineko Personentzako Autonomiaren eta Arretaren Sustapenerako beste Plan bat egin daiala eskatzea Bizkaiko Foru Aldundiari. Plan horrek, Bizkaiko Adineko Personen Kontsejuaren, eragileen eta beste kolektibo batzuen partaidetzea euki beharko dau. Ekimena, Talde Popularraren itaunetik eratorritako mozino baten aurrean Foru Gobernua eusten daben taldeek aurkeztutako zuzenketa-eske batetik sortu da.

Bere mozinoa defendiduteko orduan, Javier Ruiz bozeroale popularrak epe ertaineko eta luzeko plangintzea azpimarratu dau, plana aurrera eroteko motibazio nagusien artean. Juan Otermin batzordekide sozialistak, bere aldetik, gaur egun biztanleen zahartzea “erronka” dala esan dau, Bizkaia zahartze maila altuena dauen Euskadiko Lurralde Historikoa dalako, eta Ezkerraldea eta Bilbo dirala zahartze maila altuena daukienak. Talde Popularrak eta Euskal Sozialistak taldeak egin daben moduan, Zuriñe Argatxa jeltzaleak gogoetea egitearen garrantzia azpimarratu dau, errealidade guztiak ezagutu ahal izateko, eta konpromisoa “gizarte osoarena” izan beharko dala adierazo dau.

Oposizinoan gainerako taldeei jagokenez, Podemos Bizkaia lortutako akordioaren alde agertu da, baina “gauza bat bete ahal izatea eta beste bat horretarako behar besteko baliabide eukitea” dala esan dau, eta EH Bilduk Plana betetea gurako leukela adierazo dau, “ez aurreko hiruakaz gertatu dan moduan”. Bestelako argumenturik emon barik zuzenketa-eskearen alde agertu dan Talde Mistoaren aldeko botoagaz, proposamena aho batez onestea lortu da.

Gaur egin dan osoko saioan onetsi dan beste puntu bat, Bizkaiko Uri Hondakinak Kudeatzeko 2005 – 2016 (PIGRUP) II. Plan Integrala 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea arautzen dauen Foru Araua izan da. Bozketak Foru Gobernua eusten daben taldeen, Talde Mistoaren eta Talde Popularraren aldeko botoak jaso ditu, eta EH Bildu eta Podemos Bizkaia kontra agertu dira.

Elena Unzueta Iraunkortasun eta Baliabide Naturaleko diputatuak Batzar Nagusien aurrean azaldu dauen moduan, luzapen horri esker, Europar Batasuna Ekonomia Zirkularrari jagokenez egiten ari dan aldaketek 2030erako markauko dituen erronka barrietara egokitu ahal izango da II. PIGRUBa. Horrez gain, azpimarratu dauenez, azkenengo ebaluazioak erakusten dauenez, Bizkaia oso-osorik bete ditu Estaduak eta EAEak hondakinen arloan markau dituen 13 helburuetatik 10, eta beste bi modu parzialean bete ditu. Zero isurketa gordina izan da ezarritako helburuen artean bete ez dan bakarra.

Talde Popularrak eta Talde Mistoak II. PIGRUBa onesteko 2005ean lortu zan adostasuna jarri dabe balioan, eta barrero be hori lortu beharko litzatekela adierazo dabe. Horrez gain, modu positiboan balorau ditue lortutako helburuak, oraindino hobetu beharreko arloak dagozala autortu arren, zero isurketa gordina edo bosgarren edukiontziaaren bitartez frakzino organikoaren ehunekoa handitzea, adibidez, batzordekide popularrak zehaztu dauen moduan. Foru Gobernuaren aldetik, Euskal Sozialistak taldeko batzarkideak kontzientziazino kanpainak aitatu ditu, hurrengo urteetan hobetu beharreko ekintza garrantzitsuenen artean; batzarkide jeltzaleak, barriz, “Europako aldaketak heldu arte ezin gara geldik egon” esan dau.

Podemos Bizkaia taldeak, barriz, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek oposizinoak aurkeztutako proposamenak baloretako erakutsi daben jarrera itxia kritikau eta “goitik beherako aldaketea” beharrezkoa dala berretsi dau. EH Bilduk, Aldundiak hondakinen hierarkiaren aurrean erakusten dauen begirune faltan zentrau dau bere esku-hartzea: “Hierarkiak erakusten dauenez, lehenengo egin behar dana prebenidutea da, eta Bizkaiak ez dau prebeniduten; birziklapenera, hirugarren mailara, egiten dabe salto zuzenean”.

EZUSTEKOETARAKO FONDOAK, BATZAR NAGUSIEN AURREKO BEGIRUNEA ETA EKITALDI HANDIETAKO LAN BALDINTZAK

Horrez gain, gaurko eguneko gai zerrendak EH Bilduren Foru Arau Proposamen bat eta itaunetik eratorritako mozino bi be jaso ditu; bata be ez da onetsi. Foru Arau Proposamenaren bitartez, Udalen Finantziiazinorako Foru Fondora (Udalkutxa) zuzendutako aurreikuspen gaitzeko ezustekoetarako aurrekontuaren gaur egungo %0,75a %1 bilakatzea bilatzen eban, une honetan indarrean dagona hondamendi naturalei aurre egiteko ez dala nahikoa adierazoz. Hondamendi horreen artean aurton Muxikan, Ondarroan edo Bakion gertatutakoak aitatu ditu. Oposizinoak talde guztiak alde agertu diran arren, batzarkide jeltzaleak eta sozialistek kontrako botoa emon dabe, azkenengo lau urteetan fondoak ez dala osorik gastau adierazota.

Landu dan bigarren gaia, Batzar Nagusien aurrean izan beharreko begiruneari buruzkoa izan da, eta bertan eskaria egin jako Foru Aldundiari, izapidetze prozesuan dagozan proiektuak, komunikabideen aurrean “daborduko onetsita egongo balira moduan” ez aurkezteko. Komunikazino politiken eta, Euzko Abertzaleak taldearen eretxiz mozinoa “bidebakoa” izatearen gaineko eztabaidaren ostean, mozinoa ez da onetsi, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontrako botoa emon dabelako, EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak aldekoa eta Talde Popularra eta Talde Mistoak abstenidu egin diralako.

EH Bilduk aurkeztu dituan mozinoen artean onetsi ez dan azkenengoak Bizkaian egingo diran ekitaldi handietako kontratazinoetan gizarte arloko klausulak sartuko dirala bermatzea eskatzen eutsan aldundiari, eta baita OSALANek laneko osasunaren jarraipena egitea eta bertako produktuen eta enpresa txikien eta ertainen zerbitzuak sustetea be. Imanol Pradales diputatuak emondako erantzunagaz jarraituta, Foru Gobernuak eusten daben taldeek legetasunaren presunzinoaren aurrean begirunea eskatu dabe, gauza horreek daborduko egiten dirala adierazoz. Azkenean, mozinoa ez da onetsi, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak eta Talde Popularrak kontrako botoa emon

dabelako, EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak aldekoa eta Talde Mistoaren abstenidua egin dalako.

GIZA ESKUBIDEAK MOIN SAREAN

Ohiko osoko saioa Talde Mistoaren azkenengo mozino batez osatu da. Bertan eskaria egiten jakon Foru Aldundiari, MOIN SAREAREN barruan giza eskubideen errespetua sustatea eskatuz. Mozino hori, Singapurrek eta Dubaiko sarearen barruan daukien partaidetzan oinarritu da, izan be, Talde Mistoaren eretziz, herrialde horreek ez ditue giza eskubideak errespetetan. Gobernu taldeek adierazo daben kontrako eretzia azaltzeko orduan, “giza eskubideak errespetauko ez balira, Foru Aldundiak ez leuke parte hartuko”, esan dabe. Bozketea Podemos Bizkaiaren aldeko botoagaz, Talde Popularraren kontrakoagaz eta EH Bilduren abstentzinoagaz osatu da.

23/05/18

Las Juntas Generales aprueban por unanimidad instar a la Diputación a que elabore un Plan para la Promoción de la Autonomía y la Atención de las Personas Mayores

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado por unanimidad en la sesión plenaria celebrada esta mañana instar a la Diputación Foral de Bizkaia a que elabore un nuevo Plan para la Promoción de la Autonomía y la Atención de las Personas Mayores basado en un diagnóstico de necesidades y evaluación de la realidad actual además de las demandas futuras, y que cuente con la participación del Consejo de Personas Mayores de Bizkaia, agentes y otros colectivos. Esta iniciativa parte de una enmienda presentada por los grupos que sustentan al Gobierno Foral ante una moción derivada de interpelación del Grupo Popular.

En la defensa de su moción, el portavoz popular Javier Ruiz ha resaltado la planificación a medio y a largo plazo como una de las motivaciones principales para elaborar este plan. El apoderado socialista Juan Otermin por su parte ha manifestado que actualmente el envejecimiento de la población “es un reto” puesto que Bizkaia se trata del Territorio Histórico más envejecido de Euskadi, siendo la Margen Izquierda y Bilbao las comarcas con mayor índice de envejecimiento. Al igual que Grupo Popular y el grupo de Socialistas Vascos, la representante nacionalista Zuriñe Argatxa, ha incidido en la importancia de realizar una reflexión a fin de conocer todas las realidades y ha declarado que el compromiso debe ser “de toda la sociedad”.

Por parte del resto de grupos de la oposición, Podemos Bizkaia ha apoyado el acuerdo alcanzado aunque ha declarado que “una cosa es que se cumpla y otra que cuente con los recursos suficientes”, mientras que EH Bildu ha expresado el deseo de que se cumpla el Plan, “no como los tres anteriores”. Junto con el voto favorable del Grupo Mixto, que ha apoyado la enmienda sin más argumentos, se ha logrado alcanzar la unanimidad.

Otro de los puntos que se ha aprobado en la sesión plenaria celebrada hoy ha sido la Norma Foral que regula la prórroga del II Plan Integral de Residuos Urbanos de Bizkaia 2005 – 2016 (II PIGRUB) hasta el 31 de diciembre de 2020. La votación ha contado con los votos favorables de los grupos que sustentan al Gobierno Foral, Grupo Mixto y Grupo Popular, y los votos en contra de EH Bildu y Podemos Bizkaia.

Tal y como ha explicado la diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ante las Juntas Generales esta prórroga permite que el II PIGRUB se adecue a los nuevos retos para 2030 que marcarán las modificaciones que está realizando la Unión Europea en relación a la Economía Circular. Asimismo ha resaltado que la última evaluación asegura que Bizkaia ha cumplido totalmente 10 de los 13 objetivos marcados por el Estado y la CAV en materia de residuos, mientras que dos los ha cumplido parcialmente. El vertido crudo cero ha sido el único objetivo fijado que no se ha cumplido.

Tanto Grupo Popular como Grupo Mixto han puesto en valor el consenso alcanzado en 2005 para la aprobación del II PIGRUB, expresando a su vez el deseo de volver a lograrlo,

y han valorado positivamente los objetivos alcanzados por éste a pesar de reconocer que aún hay cuestiones que mejorar, tales como el vertido crudo cero o el incremento del porcentaje de fracción orgánica a través del quinto contenedor, tal y como ha detallado el apoderado popular. Por parte del Gobierno Foral, el juntero del grupo Socialistas Vascos ha fijado las campañas de concienciación como unas de acciones más importantes a mejorar en los próximos años; la apoderada nacionalista, asimismo, ha asegurado que “no nos podemos quedar quietos mientras que las modificaciones europeas no lleguen”.

Podemos Bizkaia, sin embargo, ha criticado la falta de disposición por parte de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos a valorar las propuestas emitidas por la oposición y ha insistido en la necesidad de que haya “un cambio sustancial”. EH Bildu ha centrado su discurso en la falta de respeto a la jerarquía de residuos por parte de la Diputación: “La jerarquía determina que primero hay que prevenir y Bizkaia no previene; hablan directamente de reciclaje, el tercer escalón”.

FONDO PARA IMPREVISTOS, RESPETO A LAS JUNTAS GENERALES Y CONDICIONES LABORABLES EN GRANDES EVENTOS

El orden del día de hoy ha contado, además, con una Proposición de Norma Foral y dos mociones derivadas de interpelación por parte de EH Bildu; todas ellas han sido rechazadas. La Proposición de Norma Foral buscaba incrementar del 0,75% actual al 1% la dotación presupuestaria destinada al Fondo Foral de Financiación Municipal (Udalkutxa) para imprevistos de difícil previsión, alegando que éste resulta insuficiente en catástrofes naturales como las acaecidas este año en Múxica, Ondarroa o Bakio. A pesar de contar con el apoyo de todos los grupos de la oposición ha sido rechazada por los apoderados nacionalistas y socialistas alegando que en los últimos cuatro años no se ha llegado a gastar por completo el fondo.

La segunda cuestión se ha tratado de una moción basada en el respeto a la Cámara y en la que se ha instado al ente foral a que no revele ante los medios de comunicación, “como si ya estuvieran acordados”, aquellos proyectos que se encuentren en proceso de tramitación. Tras un debate sobre las políticas de comunicación y sobre, según el grupo Nacionalistas Vascos, lo “injusto” de la moción, ésta ha sido rechazada con los votos negativos de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, los votos favorables de EH Bildu y Podemos Bizkaia, y la abstención de Grupo Popular y Grupo Mixto.

La última de las mociones rechazadas de EH Bildu solicitaba que la Diputación garantizara la inclusión de las cláusulas sociales en todos aquellos contratos que se adjudiquen durante la organización de los grandes eventos celebrados en Bizkaia, así como que OSALAN realice un seguimiento de la seguridad laboral, y que se promueva el suministro de productos locales y servicios de pequeñas y medianas empresas. Siguiendo con la respuesta emitida por el diputado Imanol Pradales, los grupos que sustentan al Gobierno Foral han solicitado respeto a la presunción de legalidad y han manifestado que esas acciones ya se están realizando. La moción ha sido finalmente rechazada con los votos en contra de Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Grupo Popular, el voto favorable de EH Bildu y Podemos Bizkaia, y la abstención de Grupo Mixto.

DERECHOS HUMANOS EN LA RED MOIN

La sesión plenaria ordinaria se ha completado con una última moción rechazada en la que Grupo Mixto instaba a la Diputación Foral a que promoviera el respeto de los derechos humanos dentro de la RED MOIN. Esta moción se ha basado en la participación dentro de la red de Singapur y Dubai, dos participantes que, a juicio del Grupo Mixto, no respetan los derechos humanos. El rechazo, por parte de los grupos del gobierno, se ha sustanciado en el argumento de que “si no se respetaran los derechos humanos, la Diputación Foral no hubiera participado”. La votación se ha completado con el voto favorable de Podemos Bizkaia, el voto contrario del Grupo Popular y la abstención de EH Bildu.